

3209/2012 FORU AGINDUA, abenduaren 26koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko 2013. urteko zeinu, indize eta moduluak onetsi dituen (BAO Urtarrilaren 10ekoa)

Abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuko 1. artikulua bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 37. artikuluaekin bat etorriz, zerga horren araubide berezi erraztua aplikatuko zaie berariaz zehazten diren jardueri. Foru agindu honen xedea da araubide erraztuaren alderdi zehatzenak arautzea 2013. urterako.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, zerga zentsuei buruzko arautegian zergapekoen zentsuan biltzen diren zerga egoerak ezarri ditu, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuari uko egitea edo araubide horri dagokion ezeztapena horietarikoak dira. Bata zein bestea ondoreak izan behar dituzten egutegiko urteko apirilaren 25era arte egin daitezke.

Foru Agindu honek moduluak pasa den irailaren 1az geroztik indarrean dauden zerga tasa berrietara egokitzen ditu. Tasa horiek 2013. urte guztian zehar aplikagarriak izango dira.

Horrenbestez, hauxe.

XEDATU DUT:

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuko 1. artikulua bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 37. artikuluaekin bat etorriz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztua jarraian adieraziko diren jardueri edo jarduera arloei aplikatuko zaie:

JEZ	Jarduera ekonomikoa.
0 atala	Abeltzaintza lokabea.
-	Ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.
-	Nekazariak edo abeltzainak burutu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik kanpo dauden edo haren barruan ez dauden bestelako lan eta zerbitzuak.
-	Basogintzako jardueren titularrek egindako beste lan, zerbitzu eta jarduera osagarri batzuk, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik kanpo daudenak edo haren barruan ez daudenak.
-	Erdirako araubidean burututako nekazaritzako jardueren lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
-	Erdirako araubidean burututako basogintzako jardueren lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.
-	Izadiko ekoizkinak, landare-ekoizkinak edo animalienak, eraldatu, gertatu eta lantzeko prozesuak, baldin eta beharrezko badute alta ematea Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifetan eta izadiko ekoizkin horiek zuzenean lortzen dituzten ustiapenen titularrek egiten badituzte.
314. eta 315	Metalezko aroztzintza, eta metalezko egitura eta galdaren fabrikazioa.

316.2, 3, 4 eta 9	Burdineria, sarrailagintza, torlojugintzako gaien fabrikazioa, eta burdin hariaren eratorri, tresneria eta beste ataletan ez dauden metalezko gaien fabrikazioa.
419.1	Ogi-opilgintza.
419.2	Opil, gozoki eta gailtagintza.
419.3	Oreki frijituen industriak.
423.9	Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea.
453	Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, salbu eta horiek guztiak gehienbat beste batzuei aginduta egiten direnean.
453	Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, enpresak berak eginda, baldin eta beste batzuentzat eta agindupean egiten badira.
463	Arozgintzako piezak, parket eta eraikuntzarako zurezko egiturak saldoka egitea.
468	Zurezko altzarien industria.
474.1	Testuak eta irudiak inprimatzea.
501.3	Igeltserogintza era eraikuntzako orotariko lan txikiak.
504.1	Instalazio eta muntaketak (iturgintza, hotz, bero eta aire-girotzekoak izan ezik).
504.2. eta 3	Iturgintzako, hotz, bero eta aire-girotzeko instalazioak.
504.4, 5, 6, 7 eta 8	Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Tipo eta mota guztietako sukaldeen muntaketa eta ezarketa, aldagailuen mota eta tipo guztiak barne. Tipo eta mota guztietako goragailuen muntaketa eta instalazioa. Edozein motatako eraikinetan telefonoa, telegrafoa, haririk gabeko telegrafoa eta telebista instalatzea. Metalezko muntaiak eta industri instalazio osoak; baina makineria eta ezarri edo muntatu behar diren osagaiak saldu eta ekarri gabe.
505.1, 2, 3 eta 4	Gainjazki, zoruketa eta zoladurak; eta isolamenduak instalatzea.
505.5	Arozgintza eta sarrailagintza.
505.6	Edozein tipo eta motatako pintura, eta paper, ehun edota plastikozko gainjazkiak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa.
505.7	Pintura, igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa.
642.1, 2, 3	Haragi-txikizkariak egiten dituzten urdaitegiko ekoizkinak.
642.5	Oilaskoak erretzeagatik, 642.5 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariak.
644.1	Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen txikizkako merkataritza, baita esne eta esnekiena ere.
644.2	Ogi, ogi berezi eta opilen salmentak.
644.3	Gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinen txikizkako merkataritza.
644.6	Oreki frijitu, estalien edota estalgabeen nahiz barrubeteen, patata frijituen, janaurrekoen, fruitu lehor, gulosina, txokolatezko prestakin eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.
647.1	Loteriak merkaturatzeagatik 647.1 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariak.
647.2. eta 3	Loteriak merkaturatzeagatik 647,2 eta 3 epigrafeetan matrikulaturik

	dauden txikizkako merkataria.
652.2. eta 3	Loteriak merkaturatzeagatik 652.2 eta 3 epigrafeetan matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
653.2	Material eta aparatu elektrikoan, elektronikoen eta elektratresnen, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.
653.4. eta 5	Eraikuntzako materialen, eta saneamenduko gai eta altzarien, eta ate, leiho, pertsiana eta abarren txikizkako merkataritza.
654.2	Lur gaineko ibilgailuetarako aldagailu eta ordezkaien txikizkako merkataritza.
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).
654.6	Ibilgailu mota guztietarako gurpilazal, banda edo bandaje eta airekamaren txikizkako merkataritza; gai horien handizkako merkataritzako jarduerak izan ezik.
659.3	659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkataria, baina negatiboak eta irartzen den argazki-materiala biltzeagatik, beste batzuen laborategietan prozesatzeko; eta kopia eta zabalkuntzak ematea.
659.4	Kanpoko publizitate zerbitzuagatik eta garraio publikoaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak eta loteria merkaturatzeagatik 659.4 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
662.2	Loteriak merkaturatzeagatik 662.2 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.
663.1	Betegarridun nahiz betegarririk gabeko oreki frijituen, patata frijituen, gazigarrigaien, fruitu lehorren eta gozokien merkataritzan soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko txikizkako merkataritza; txokolate eta edari freskagarrien gertaketarena, norberaren instalazioan edo ibilgailuan berezko txurrogaiak eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik.
671.4	Bi sardexkako jatetxeak.
671.5	Sardexka bateko jatetxeak.
672.1, 2 eta 3	Kafetegiak.
673.1	Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.
673.2	Bestelako kafetegiak eta tabernak.
675	Zerbitzuak kiosko, kaxa, barraka nahiz antzeko beste lokaletan.
676	Zerbitzuak txokolategi, izotz denda eta ortxata dendetan.
681	Izar bateko edo biko hotel eta moteletako ostalaritza zerbitzua.
682	Ostatuetxe eta pentsioetako ostalaritza zerbitzua.
683	Ostatuetxe eta ostalierretxeetako ostalaritza zerbitzua.
691.1	Etxeko elektragaien konponketa.
691.2	Ibilgailu automobil, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa.
691.9	Oinetakoen konponketa.
691.9	Beste ataletan ez dauden kontsumogaiak konpontzea (oinetakoen konponketa eta artelanen, altzarien, antzinatekoen eta musika-tresnen

	zaharberrikuntza izan ezik).
692	Industri makineriaren konponketa.
699	Beste ataletan ez dauden konponketak.
721. eta 3	Taldekako hiri garraioa, eta bidaiarien errepidezkoa.
721.2	Autotaxizko garraioa.
722	Errepide bidezko merkatugaien garraioa.
751.5	Ibilgailuen koipeztaketa eta garbiketa.
757	Etxe-aldaketen zerbitzuak.
849.5	Mezularitza eta matalgo jarduera, norberaren garraio bideekin egiten dena.
933.1	Lur gaineko eta urgaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea.
933.9	Irakaskuntzako beste jarduera batzuk, beste ataletan ez daudenak, hala nola, hizkuntzak, mozketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza.
967.2	Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak.
971.1	Erabilitako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikuzketa eta lisaketa.
972.1	Gizonezko eta emakumezkoentzako ile-apainketa zerbitzuak.
972.2	Edergintza areto eta institutuak.
973.3	Fotokopiagailuen bidez agirien kopiak egiteko zerbitzuak.

2. Jarduera bakoitzaren eragiketa ekonomikoak zehazteko, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko arautegiaren arabera jokatu beharko da.

Era berean, jarduera bakoitzaren barrukotzat hartuko dira foru agindu honen I eta II. eranskinetan beren beregi sartzen diren eragiketa ekonomikoak, baldin eta eragiketok jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Foru agindu honen II. eranskinean ageri diren jarduerak jarduera nagusiaren erantsitzat joko dira baldin eta sortzen dituzten sarrerak, gehienez, jarduera nagusiak sortzen dituenen %40 badira. I. eranskinean ageri diren jarduerari dagokienez, foru agindu honetako hurrengo artikuluan adierazitako kontzeptuari eutsiko zaio.

2. artikulua. Salbuespen-neurriak.

Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztu berezia ez zaie ondoko jarduera edo jarduera-arloei aplikatuko, baldin eta jarraiko magnitudeak gainditzen badituzte:

- a) Jarduera-multzo osoaren magnitudea: 450.000 euroko sarrerak urtean.

Horren kalkuluan ondokoak baino ez dira sartuko:

- Abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak onetsi duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 40.1. artikuluan aipatutako Erregistro Liburuan idaztohartu behar diren eragiketak.
- Aurreko paragrafoan aipatu diren eragiketez gainera, fakturazio betebeharrak araupetu dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuko 2. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera fakturak luzatu eta gorde beharra dakarten eragiketak, salbu

eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 121.3. artikuluan aipatutako eragiketak eta, baldin eta jarduera ekonomikoaren etekintzat kalifikaturik ez badaude, ondasun higiezinaren errentamenduak.

Aurre-aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, jarduera horretako sarreraren kopurua urte osorako hartuko da.

b) Sarreraren kopuruaren arabera magnitudea.

300.000 euroko sarrerak jarduera hauetan:

- «Abeltzaintza lokabea».
- «Ganadua hazi, zaindu eta gizenzeko zerbitzuak».
- «Nekazariak edo abeltzainak burutu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik kanpo dauden edo haren barruan ez dauden bestelako lan eta zerbitzuak».
- «Basozaintzako jardueren titularrek burutu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik kanpo dauden edo haren barruan ez dauden bestelako lan eta zerbitzuak».
- «Erdirako araubidean burututako nekazaritzako jardueren lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak».
- «Erdirako araubidean burututako basogintzako jardueren lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak».
- «Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian sar daitezkeen nekazaritza edo abeltzaintzako jarduerak».
- «Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian sar daitezkeen basozaintzako jarduerak».
- «Izadiko ekoizkinak, landare-ekoizkinak edo animalienak eraldatu, gertatu eta lantzeko prozesuak, baldin eta beharrezko badute alta ematea Ekonomi Jardueren gaineko Zergako industri jardueren tarifetan eta izadiko ekoizkin horiek zuzenean lortzen dituzten ustiapenen titularrek egiten badituzte».

Letra honetako aurreko paragrafoetan adierazitakoaren kalterik gabe, foru agindu honetako lehenengo artikuluan jasotako «Nekazariak edo abeltzainak burutu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik kanpo dauden edo haren barruan ez dauden bestelako lan eta zerbitzuak» eta «Basogintzako jardueren titularrek burutu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik kanpo dauden edo haren barruan ez dauden bestelako lan eta zerbitzuak» multzoetako jarduerari egotzi ahal zaizkien guztirako sarreraren kopurua nekazaritza edota abeltzaintzako eta basogintzako jarduerari dagozkienak baino txikiagoak direnean bakarrik aplikatu ahal izango zaie halako jarduerari Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztu berezia.

Aurre-aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, jarduera horretako sarreraren kopurua urte osorako hartuko da.

Aurreko a) eta b) letretan xedatutakoaren ondoretarako, sarreraren kopuruak adierazitako jarduera horien multzoan lortutako sarrera guztiak barne hartuko ditu, eta kanpoan utziko dira diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak, kalte-ordainak, eta bai Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, halakorik badago, eragiketa kargatzen duen baliokidetasun errekarua ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztua duten jardueretan.

c) Erositako ondasun eta zerbitzuen bolumenaren araberako magnitudea:

- 300.000 euro urtean, egiten diren jarduera ekonomiko guztiak kontuan hartuta. Muga horren barruan kontuan hartuko dira azpikontratatu diren obra eta zerbitzuak. Muga horretatik kanpo utziko dira ibilgetuen eskuraketak.
- Aurre-aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, erosketen kopurua urte osorako hartuko da.

d) Magnitude zehatzak:

Jarduera ekonomikoa	Magnitudea
Metalezko aroztzinta, eta metalezko egitura eta galdaren fabrikazioa.	4 pertsona enplegaturik.
Burdinaria, sarrailagintza, torlojugintzako gaien fabrikazioa, eta burdin hariaren eratorri, tresneria eta beste ataletan ez dauden metalezko gaien fabrikazioa.	5 pertsona enplegaturik.
Ogi-opilgintza.	6 pertsona enplegaturik.
Opil, gozoki eta gailtagintza.	6 pertsona enplegaturik.
Oreki frijituen industriak.	6 pertsona enplegaturik.
Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea.	6 pertsona enplegaturik.
Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, salbu eta horiek guztiak gehienbat beste batzuei aginduta egiten direnean.	5 pertsona enplegaturik.
Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, enpresak berak eginda, baldin eta beste batzuentzat eta agindupean egiten badira.	5 pertsona enplegaturik.
Aroztzintzako piezak, parket eta eraikuntzarako zurezko egiturak saldoka egitea.	5 pertsona enplegaturik.
Zurezko altzarien industria.	4 pertsona enplegaturik.
Testuak eta irudiak inprimatzea.	4 pertsona enplegaturik.
Igeltserogintza era eraikuntzako orotariko lan txikiak.	6 pertsona enplegaturik.
Instalazio eta muntaketak (iturgintza, hotz, bero eta aire-girotzekoak izan ezik).	3 pertsona enplegaturik.
Iturgintzako, hotz, bero eta aire-girotzeko instalazioak.	4 pertsona enplegaturik.
Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Tipo eta mota guztietako sukaldeen muntaketa eta ezarketa, aldagailuen mota eta tipo guztiak barne. Tipo eta mota guztietako goragailuen muntaketa eta instalazioa. Edozein motatako eraikinetan telefonoa, telegrafoa, hariarik gabeko telegrafoa eta telebista instalatzea. Metalezko muntaiak eta industri instalazio osoak; baina makineria eta ezarri edo muntatu behar diren osagaiak saldu eta ekarri gabe.	3 pertsona enplegaturik.
Gainjazki, zoruketa eta zoladurak; eta isolamenduak instalatzea.	4 pertsona enplegaturik.
Aroztzinta eta sarrailagintza.	4 pertsona

	enplegaturik.
Edozein tipo eta motatako pintura, eta paper, ehun edota plastikozko gainjazkiak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa.	3 pertsona enplegaturik.
Pintura, igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa.	3 pertsona enplegaturik.
Haragi eta hondakinen, haragigai eta haragiki gertatuen txikizkako merkataritza.	5 pertsona enplegaturik.
Oilaskoak erretzeagatik, 642.5 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataritza.	4 pertsona enplegaturik.
Ogi, pastel, gozoki eta antzekoak, eta esnea eta esnekiak txikizka saltzea.	6 pertsona enplegaturik.
Ogi, ogi berezi eta opilen salmentak.	6 pertsona enplegaturik.
Gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinen txikizkako merkataritza.	6 pertsona enplegaturik.
Oreki frijitu, estalien edota estalgabeen nahiz barrubeteen, patata frijituen, janurrekoen, fruitu lehor, gulosina, txokolatezko prestakin eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.	6 pertsona enplegaturik.
Loteriak merkaturatzeagatik 647.1 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataritza.	5 pertsona enplegaturik.
Loteriak merkaturatzeagatik 647,2 eta 3 epigrafeetan matrikulaturik dauden txikizkako merkataritza.	4 pertsona enplegaturik.
Loteriak merkaturatzeagatik 652.2 eta 3 epigrafeetan matrikulaturik dauden txikizkako merkataritza.	4 pertsona enplegaturik.
Material eta aparatu elektrikoaren, elektronikoaren eta elektratresnen, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.	3 pertsona enplegaturik.
Eraikuntzako materialen, eta saneamenduko gai eta altzarien, eta ate, leiho, pertsiana eta abarren txikizkako merkataritza.	3 pertsona enplegaturik.
Lur gaineko ibilgailuetarako aldagailu eta ordezkaien txikizkako merkataritza.	4 pertsona enplegaturik.
Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxekeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).	3 pertsona enplegaturik.
Ibilgailu mota guztietarako gurpilazal, banda edo bandaje eta aire-kamaren txikizkako merkataritza.	4 pertsona enplegaturik.
659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkataritza, baina negatiboak eta irartzen den argazki-materiala biltzeagatik, beste batzuen laborategietan prozesatzeko; eta kopia eta zabalkuntzak ematea.	3 pertsona enplegaturik.
Herri garraioaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak, eta loteriak merkaturatzeagatik 659.4 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataritza, herriko bideetan jarritako kioskoetan ari direnak izan ezik.	3 pertsona enplegaturik.
Herri garraioaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak, eta loteriak merkaturatzeagatik 659.4 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataritza, eta herriko bideetan jarritako kioskoetan ari direnak ere bai.	2 pertsona enplegaturik.
Loteriak merkaturatzeagatik 662,2 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataritza.	3 pertsona enplegaturik.
Betegarridun nahiz betegarririk gabeko oreki frijituen, patata frijituen,	2 pertsona

gazigarrigaien, fruitu lehorren eta gozokien merkataritzan soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko txikizkako merkataritza; txokolate eta edari freskagarrien gertaketarena, norberaren instalazioan edo ibilgailuan berezko txurrogaiak eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik.	enplegaturik.
Bi sardexkako jatetxeak.	10 pertsona enplegaturik.
Sardexka bateko jatetxeak.	10 pertsona enplegaturik.
Kafetegiak.	8 pertsona enplegaturik.
Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.	8 pertsona enplegaturik.
Bestelako kafetegiak eta tabernak.	8 pertsona enplegaturik.
Zerbitzuak kiosko, kaxa, barraka nahiz antzeko beste lokaletan.	3 pertsona enplegaturik.
Zerbitzuak txokolategi, izotz denda eta ortxata dendetan.	3 pertsona enplegaturik.
Izar bateko edo biko hotel eta moteletako ostalaritza zerbitzua.	10 pertsona enplegaturik.
Ostatuetxe eta pentsioetako ostalaritza zerbitzua.	8 pertsona enplegaturik.
Ostatuetxe eta ostalierretxeetako ostalaritza zerbitzua.	8 pertsona enplegaturik.
Etxeko elektragaien konponketa.	3 pertsona enplegaturik.
Ibilgailu automobil, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa.	5 pertsona enplegaturik.
Oinetakoen konponketa.	2 pertsona enplegaturik.
Beste ataletan ez dauden kontsumogaiak konpontzea (oinetakoen konponketa eta artelanen, altzarien, antzinatekoen eta musika-tresnen zaharberrikuntza izan ezik).	2 pertsona enplegaturik.
Industri makineriaren konponketa.	2 pertsona enplegaturik.
Beste ataletan ez dauden konponketak.	2 pertsona enplegaturik.
Taldekako hiri garraioa, eta bidaiarien errepidezkoa.	5 ibilgailu urteko egun guztietan.
Autotaxizko garraioa	3 ibilgailu urteko egun guztietan
Errepide bidezko merkatugaien garraioa.	5 ibilgailu urteko egun guztietan.
Ibilgailuen koipeztaketa eta garbiketa.	5 pertsona enplegaturik.

Etxe-aldaketen zerbitzuak.	5 ibilgailu urteko egun guztietan.
Mezularitza eta matalgo jarduera, norberaren garraiobideekin egiten dena.	5 ibilgailu urteko egun guztietan.
Lur gaineko eta urgaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea	4 pertsona enplegaturik
Irakaskuntzako beste jarduera batzuk, beste ataletan ez daudenak, hala nola, hizkuntzak, mozketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza	5 pertsona enplegaturik.
Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak.	3 pertsona enplegaturik.
Erabilitako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikuzketa eta lisaketa.	4 pertsona enplegaturik
Gizonezko eta emakumezkoentzako ile-apainketa zerbitzuak.	6 pertsona enplegaturik.
Edergintza areto eta institutuak.	6 pertsona enplegaturik.
Fotokopiagailuen bidez agirien kopiak egiteko zerbitzuak.	4 pertsona enplegaturik

Araubide erraztuan sartzea dakarren neurria zenbateko, enplegaturiko pertsonatzat edota ibilgailutzat hartuko dira, jarduera nagusia egiteko erabiltzen direnak, bai eta araubidearen barruko jarduera erantsietarik edozein egiteko erabiltzen direnak ere, foru agindu honetako 1. artikuluko 2. idatz-zatiaren arabera.

Enplegaturiko langileria, aurre-aurreko urtean jardueran aritutako epealdiari dagokion batez besteko haztatuaren bitartez zehaztuko da.

Enplegaturiko langileriaren barruan soldatapekoak nahiz soldata gabekoak daude sartuta. Batez besteko haztatua zehazteko, hurrengo erregelok erabiliko dira soil-soilik:

- Aurre-aurreko urtean zehar jarduera burutu den epealdian lan egindako orduen kopurua bakarrik hartuko da kontuan.
- Soldatarik gabeko pertsonatzat jardueran urtean 1.800 ordu gutxienez lan egin duena joko da. Urtean egindako lanorduek 1.800 baino gutxiago badira, urtean benetan egindako lanorduen eta 1.800 arteko proportzioa hartuko da soldatarik gabeko pertsonaren zenbatekotzat.
- Hala ere, enpresaburua soldata gabeko pertsonatzat zenbatuko da. Egiaztatutako arrazoi objektiboak, hala nola, erretiroa, ezintasuna, jardueren aniztasuna edo ustiategiaren aldi baterako itxiera direla eta, urtean lan-orduen kopurua 1.800 ordu baino gutxiagokoa bada, jardueran benetan egindako denbora zenbatuko da. Hala gertatzen denean, jarduerako zuzendaritza, antolaketa eta plangintzan egindako denbora eta, oro har, haren titulartasunari datzekion zereginetan egindakoa zenbatzeko, enpresaria 0,25 pertsona/urteko konputatuko da, benetako dedikazioa bestelakoa dela frogatu ezean.
- Soldatapeko langiletzat honakoak zenbatuko dira: kasuan kasuko hitzarmen kolektiboan ezarritako urteko eta langileko lan-ordu kopurua egin dutenak, edo, hitzarmenik ezean, urtean 1.800 lan-ordu egin dituztenak. Urtean lanean egindako orduak gutxiago edo gehiago izatera, alokairupeko pertsonaren zenbatekotzat, lanean

benetan egindako orduen kopuruaren eta hitzarmen kolektiboan finkatutakoen edo, bestela, 1.800 arteko proportzioa hartuko da.

Jardueran aritzen den lehen urtean, jarduera hastean enplegaturiko pertsonak edo ibilgailuak hartuko dira kontuan.

Egutegiko urte batean letra honetako neurriak gainditzen badira, subjektu pasiboa bazterturik geldituko da hurrengo urteaz gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztutik edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubidetik baztertuko da, baldin eta jarduera horien zioz ezartzen badu.

3. artikulua. Indizeak eta moduluak.

Abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 38. eta 42. artikuluekin bat etorritz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi eta erraztuaren modulu eta indize zuzentzaileak onetsi dira, hain zuzen ere aurreko 1. artikuluko jardueretan 2013. urtean zehar aplikatu behar direnak; horrezaz gainera, horiek guztiak nahiz beroriek aplikatzeko jarraibideak foru agindu honetako I., II. eta III. eranskinetan ageri dira.

4. artikulua. Ukoa eta ezeztapena.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, baldin eta egiten dituzten jardueri araubide berezi eta erraztua aplikatzen bazaie eta hari uko egin nahi badiote edo ukoa ezeztatu nahi badute 2013. urterako, aukera hori baliatu ahal izango dute apirilaren 25era arte.
2. Ukoa edo ezeztapena egiteko abenduaren 2ko 2.828/2010 Foru Aginduak onetsitako bi ereduetako bat aurkeztu behar da, kasuan kasukoa: 036 eredia, enpresaburuek, profesionalek eta atxikitzaileek zentsuko alta, baxa eta aldaketa aitorpenerako aurkeztu beharrekoa, edo 037 eredia, enpresaburuek eta profesionalek (pertsona fisikoek) zentsuko aldaketa aitorpenerako aurkeztu beharrekoa.
3. Aurrekoa gorabehera, araubide berezi erraztuari uko egin zaiola ulertuko da hark ondoreak izan behar dituen egutegiko urteko lehen hiruhilekoari dagokion autolikidazioa epealdiren barruan aurkezten bada araubide orokorra aplikatuta. Jarduera hasi berrietan ere, araubide bereziari uko egin zaiola ulertuko da baldin eta subjektu pasiboak jarduerari ekin ondoren aurkeztu behar duen lehenengo autolikidazioa epealdiaren barruan eta araubide orokorra aplikatuta aurkezten bada.
4. Halaber, araubide erraztuari uko egin zitzaionetik hiru urte igarotakoan, ukoa ezeztatu egin dela ulertuko da baldin eta hark ondoreak izan behar dituen egutegiko urteko lehen hiruhilekoari dagokion autolikidazioa epealdiren barruan aurkezten bada araubide berezi erraztua aplikatuta.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztuan egindako eragiketa arruntek sortutako kuota kalkulatzeko arloko krisiek erasandako abeltzaintzako jarduera batzuetan 2013an aplikatu beharreko ehunekoak.

Ondoren adieraziko diren jardueretan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztuan 2013. urtean egiten diren eragiketek sortutako kuota kalkulatzeko ehunekoak ezarri dira; hona:

- Hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak: 0,06625.
- Erlezaintza: 0,070.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2013. urtean sortuko ditu ondoreak.

I. ERANSKINA. NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASOGINTZAKO JARDUERAK.

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN . ARAUBIDE BEREZI ERRAZTUKO INDIZE ETA MODULUAK.

Jarduera. Okelatarako txerri-aziendaren eta hegazti-hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera. Arrautzatarako hegazti-hazkuntza, eta esnetarako ardi-, ahuntz- eta behi-azienden ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,04.

Jarduera. Okelatarako behi-aziendaren eta untxi-hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera. Hazteko txerri-azienda, hazteko behi-aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza, eta beste ataletara berariaz bildu gabeko abeltzaintzako beste jardueren intentsibo edo estentsibo batzuk.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10 .

Jarduera. Okelatarako ardi- eta ahuntz- aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10 .

Jarduera.-Hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,09375.

Jarduera.-Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik salbuetsita dauden nekazari, abeltzain edo basogintzako jardueren titularrek egindako bestelako lan eta zerbitzu osagarriak, eta abereak (hegaztiak salbu) hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,10.

Jarduera.-Nekazari edota abeltzainek egindako jardueren osagarriak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian ez daudenak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,21.

Oharra: Adibide gisa, jardueren osagarrien barruan ondokoak sartuko dira: Nekazaritza-turismoa, eskulangintza, ehiza, arrantza, eta josteta jardueren eta aisiakoak; izan ere, horietan guztietan, nekazariak edo abeltzainak esku hartu behar du begirale, gidari edo aditu gisa: txangozaletasuna, zidor-zaletasuna, ibilbide ekologikoak eta abar.

Jarduera.-Erdirako araubidean egiten diren nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, jarduera horiek ondorengo ataletan ez dauden nekazaritzako ekoizkinak lortzeko egiten direnean.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,04.

Jarduera.-Erdirako araubidean burutu eta belar-bazkak lortzeko nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,07625.

Jarduera.-Erdirako araubidean burutu eta ehungintzarako landareak eta tabakorria lortzeko nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,21.

Jarduera.-Erdirako araubidean egiten diren basogintzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak .

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,21 .

Jarduera.-Gai naturalak gazta lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,070 .

Jarduera.-Gai naturalak mahaiko ardoa lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,2675.

Jarduera.-Gai naturalak jatorrizko izendazioko ardoa lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,2675.

Jarduera.-Gai naturalak aurreko ekoizkinak ez beste batzuk lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea: 0,19625.

BALIO ERANTSIAREN GAINKO ZERGAREN INDIZE . ETA MODULUAK APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

ARAU OROKORRAK

1. Araubide berezi honen kuota hauxe izango da: subjektu pasiboak egindako araubideko jarduera guztien kuoten batura.

Oro har, jarduera bakoitza egiteagatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioa hauxe izango da: jarduera horren «eragiketa arrunten zioz sortutako kuoten» eta «eragiketa arrunten zioz jasan edo ordaindutako kuoten» arteko kenketaren emaitza. Emaitza «araubide erraztuaren kuota» izango da eta bera zuzendu behar izango da, foru agindu honen III. eranskineko 1. zenbakian esaten den bezala, hau da, Zergari buruzko Foru Arauko 123. artikuluko lehenengo idatz-zatiko B puntuko eragiketen kuotak gehituz, eta aktibo finkoak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuotak kenduz.

2. Aurreko 1. zenbakian adierazitakoak ondorioak izan ditzan, jarduera bakoitzari araubide erraztuan dagokion kuota zenbatzeko, ondoren ezarriko den prozedura burutuko da:

- 2.1. Eragiketa arrunten zioz sortutako kuota.

Jarduera batzuetan gai naturalak edo lan, zerbitzu eta jarduera erantsiak ematen dira, bada, jarduera horietan eragiketa arrunten zioz sortutako kuota laborantza edo ustiapen bakoitzaren sarrera guztiak «eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea»z biderkatuz lortuko da; sarrera horietan ez dira zenbatuko ez diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak ez kalte-ordainak.

Beste jarduera batzuetan gai naturalak eraldatu, gertatu edo lantzeko jartzen dira, bada, jarduera horietan, eragiketa arrunten zioz sortutako kuota honelaxe lortuko da: prozesuan erabilitako izadiko ekoizkinen balioa, merkatuko prezioan, biderkatuko da, berari dagokion «eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizeaz» eta emaitza hori izango da. Jarduera horietako eragiketa arrunten zioz sortutako kuota egotziko da, noiz eta gai naturalak eraldatu, gertatu eta lantzeko prozesu horietara eransten direnean. Hala ere, 1998 aurreko ekitaldietan prozesu horien menpean jarrita egon diren ekoizkintetatik 2007ko urtarrilaren 1az gero eskualdatzen direnei dagokienez, eragiketa arrunten zioz sortutako kuota prozesu horietan lortu diren ekoizkinak eskualdatzen diren unean egotziko da.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak egitean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren bosgarren eranskineko a) eta b) letrak aplikatzearen ondorioz aduana-araubideaz besteko gordailu araubideko emateak egiten badira, ez dira aplikatuko indize eta moduluak, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketak egiten badira.

2.2. Eragiketa arrunten zioz jasan edo ordaindutako kuoten kenkaria.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotatik aktibo finkoez besteko ondasun eta eskubideak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira, baldin eta ondasun eta eskubideok jarduera egiteko erabiltzen badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VIII. tituluko I. kapituluaren eta Zergaren Araudian ezarritakoaren arabera; horri dagokionez, aktibo finkotzat hartuko dira ibilgetuaren osagaiak. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 130. artikuluko nekazaritzako konpentsazioak ere kendu ahal izango dira, hau da, subjektu pasiboek ondasun edota eskubideak eskuratzeagatik nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren menpean dauden enpresaburuei ordaindutakoak. Hala ere, jasandako kuota gisa, eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren zenbatekoaren %1 kendu ahal izango da, eragiketa horien mota berberarengatik eta frogagaitzak izateagatik.

Aurreko paragrafoko kenkariei ondoko erregelok aplikatuko zaizkio:

- a) 1. Joan-etorri edo bidaien, ostalaritza eta jatetxeen zerbitzuen zioz jasandako kuotak ezin kendu izango dira, baldin eta enpresariak edo profesionalak jarduera lokal jakin batean egiten badute. Horretarako, lokal jakina zeinahi eraikin izango da, jendea ezin sar daitekeen biltegiak, aparkalekuak eta gordailutegiak izan ezik.
- b) 2. Jasandako edo ordaindutako kuotak jasantzat edo ordaindutzat jo behar diren urteko azken zergaldiko autolikidazioan soilik kendu ahal izango dira; beraz, jarraiko urteetan zerga-ordainketan aplikatu beharreko araubidea gorabehera, ezin kendu izango dira geroagoko zergaldi batean.
- c) 3. Enpresaburuak edo profesionalak ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen baditu araubide honi heldutako jarduera batzuetan batera erabiltzeko, orduan jarduera bakoitzean kendu behar den kuota ondasun eta eskubideak benetan erabiltzearen lainekoa izango da. Prozedura hori ezin aplikatu bada, orduan jarduerari hainbana egotziko zaie.

2.3. Araubide erraztuaren kuota.

Eragiketa arrunten zioz ordaindutako kuotatik eragiketa arrunten zioz jasan edo ordaindutako kuotak kenduko dira, aurreko 2.2 zenbakian adierazitakoaren arabera, eta horixe izango da araubide berezi eta erraztuaren kuota.

HIRUHILEKOKO KUOTAK

3. Aurreko 2. zenbakian adierazitako kalkulua subjektu pasiboak ekitaldiaren amaieran egin beharko du; halaz guztiz, egutegiko urte bakoitzeko lehenengo hiru hiruhilekoetako autolikidazioetan, subjektu pasiboak araubide erraztuaren kuotaren zati baten konturako sarrera egingo du apiril, uztail eta urriko egutegiko lehenengo hogeita bost egunetan.

Autolikidazio horietan sartu behar den zenbatekoa kalkulatzeko, hiruhileko eragiketa arrunten zioz sortutako kuota zenbatetsiko da. Horretarako, hiruhileko «eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren indizea» sarrera guztien kopuruari aplikatuko zaio, diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak eta kalte-ordainak kenduta, bai eta eragiketa kargatzen duen baliokidetzaren errekargua ere, bidezkoa denean. Eragiketa arrunten zioz sortutako kuota horren gainean ondoko ehunekoak aplikatuko dira:

Jarduera	Ehunekoa
Okelatarako txerri-aziendaren eta hegazti-hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.	%12
Ustiapen intentsiboko abeltzaintza, arrautzatarako hegazti-hazkuntza, eta esnetarako ardi-, ahuntz- eta behi-azienda.	%2.
Okelatarako behi-aziendaren eta untxi-hazkuntzaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.	%24
Hazteko txerri-azienda, hazteko behi-aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza, eta beste ataletara bereziki bildu ez diren abeltzaintzako beste jarduera intentsibo eta estentsibo batzuk.	%32
Okelatarako ardi- eta ahuntz-aziendaren ustiapen intentsiboko abeltzaintza.	%40
Hegaztiak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.	%40
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezitik salbuetsita dauden nekazari, abeltzain edo basogintzako jardueren titularrek egindako bestelako lan eta zerbitzu osagarriak, eta abereak (hegaztiak salbu) hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.	%48
Nekazari, abeltzain edo basogintzako jardueren titularrek egindako jarduera osagarriak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian ez daudenak.	%80
Erdirako araubidean egiten diren nekazaritzako jardueretan, lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak, jarduera horiek ondorengo ataletan ez dauden nekazaritzako ekoizkinak lortzeko egiten direnean.	%2
Erdirako araubidean belar-bazkak lortzeko egiten diren nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.	%28
Erdirako araubidean ehungintzarako landareak eta tabakorria lortzeko egiten diren nekazaritzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.	%44
Erdirako araubidean egiten diren basogintzako jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak.	%44
Gai naturalak gazta lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.	%28
Gai naturalak mahaiko ardoa lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.	%80
Gai naturalak jatorrizko izendazioko ardoa lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.	%80
Gai naturalak aurreko ekoizkinak ez beste batzuk lortzeko eraldatu, gertatu eta lantzea.	%80

Hala ere, gai naturalak eraldatu, gertatu eta lantzen diren jardueretan, ehuneko hori ondoko eragiketaren emaitzakoari ezarriko zaio: hiru hilekoan erabili diren gai naturalen balioa, «eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaaren indize» egokia eta merkatuko prezioa biderkatuz sortzen denari.

URTEKO KUOTA

4. Urtea amaitutakoan edo jarduerari utzitakoan, subjektu pasiboak araubide erraztuaren urteko kuota kalkulatu beharko du; horretarako, kontuan izan behar ditu egutegiko urteko sarrera guztiak, diru-laguntza arruntak edo kapitalekoak eta kalte-ordainak kenduta, eta eragiketa kargatzen duen baliokidetzaren errekargua, halakorik egonez gero, aurreko 2. puntuaren ezarritakoaren arabera.
5. Ekitaldiko azken autolikidazioan araubide erraztuaren urteko kuota adierazi behar da, eta hartatik ekitaldiko lehenengo hiru hiru hilekoetako autolikidazioetan likidatutako kopuruak kendu.

Baldin eta ekitaldiko azken autolikidazioaren emaitza negatiboa bada, subjektu pasiboak dirua itzultzeko eskatu ahal izango du, Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluko lehenengo idatz-zatian ezarri den bezala. Bestela, hurrengo aldizkako autolikidazioetan beraren alde gertatzen den saldoarekin konpentsatzea hautatu ahal izango du.

6. Egutegiko urte bateko azken hiru hilekoetako autolikidazioa hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu behar da.
7. Zergari buruzko Foru Arauko 123. artikuluko lehenengo idatz-zatiko B puntuaren adierazitako eragiketen kuota likidatzeko eta aktibo finakoak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuota kentzeko, foru agindu honen III. eranskineko 1. zenbakian adierazitakoa egin behar da.

II. ERANSKINA.

BESTE JARDUERA BATZUK BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUBIDE BEREZI ERRAZTUKO INDIZE ETA MODULUAK.

Jarduera: Metalezko aroztzintza, eta metalezko egitura eta galdaren fabrikazioa.

JEZen epigrafea: 314. eta 315 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegatutako langileak	Pertsona	5.968,73
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	43,81
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	289,34

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaaren %30.

Jarduera: Burdineria, sarrailagintza, torlojugintzako gaien fabrikazioa, eta burdin hariaren eratorri, tresneria eta beste ataletan ez dauden metalezko gaien fabrikazioa.

JEZen epigrafea: 316,2, 3, 4 eta 9.

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegatutako langileak	Pertsona	8.010,65
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	42,16
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	28,10

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Ogi-opilgintza.

JEZen epigrafea: 419.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.693,54
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	7,09
3	Labearen azalera	100 dezimetro karratu	30,47

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 644,1 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak egiteari dagokiona sartzen da.

Jarduera: Opil, gozoki eta gailtagintza.

JEZen epigrafea: 419.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.064,67
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro karratu	59,34

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan gozogintza gazituko ekoizkinak eta aurrekuzinatutako platerak egiteak eta beraien txikizkako merkataritzak eratortzen dutena sartzen da, baldin eta jarduera horiek jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 644.3 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak egiteari dagokiona sartzen da.

Jarduera: Oreki frijituen industriak.

JEZen epigrafea: 419.3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.550,92
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	10,63

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 644.6 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak egiteari dagokiona sartzen da.

Jarduera: Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea.

JEZen epigrafea: 423.9 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.550,92
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	10,63

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 644.6 epigrafeko oharrean aipatutako jarduerak egiteari dagokiona sartzen da.

Jarduera: Jantzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, salbu eta horiek guztiak gehienbat gainontzekoei aginduta egiten direnean.

JEZen epigrafea: 453 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.232,96
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	25,62
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	198,40

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Jantzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, enpresak berak eginda, baldin eta beste batzuentzat eta agindupean egiten badira.

JEZen epigrafea: 453 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.926,79
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	19,01
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	148,80

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Arozgintzako piezak, parket eta eraikuntzarako zurezko egiturak saldoka egitea.

JEZen epigrafea: 463 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	8.126,38
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	13,23

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Zurezko altzarien industria.

JEZen epigrafea: 468 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.522,30
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	28.10

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Testuak nahiz irudiak inprimatzea.

JEZen epigrafea: 474.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	7.861,85
2	Potentzia elektrikoa	KW kontratatua	165,34
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	264,53

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan lanen aurre-moldizte edota azaleztatzearen jarduerena sartzan da, baldin eta jarduerok jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Igeltserogintza eta eraikuntzako orotariko lan txikiak.

JEZen epigrafea: 501.3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.401,25
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	23,03
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	76,18

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %9.

Jarduera: Instalazio eta muntaketak (iturgintza, hotz, bero eta aire-girotzekoak izan ezik).

JEZen epigrafea: 504.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.601,93
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	30,31
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	3,70

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %19.

Jarduera: Iturgintzako, hotz, bero eta aire-girotzeko instalazioak.

JEZen epigrafea: 504,2. eta 3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.775,14
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	50,61
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	2,96

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Jarduera: Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. tipo eta mota guztietako sukaldeak muntatu eta instalatzea, beraien aldagailuen mota eta tipo guztiak barne. Edozein mota eta tipotako igogailuak muntatu eta instalatzea. Eraikin eta eraikuntza guztietan telefono, telegrafo, haririk gabeko telegrafo eta telebistak instalatzea. Metalezko muntaiak eta industri instalazio osoak; baina makineria eta ezarri edo muntatu behar diren osagaiak saldu eta ekarri gabe.

JEZen epigrafea: 504. 4, 5, 6, 7 eta 8 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.601,93
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	30,31
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	3,70

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %19.

Jarduera: Gainjazki, zoruketa eta zoladurak; eta isolamenduak instalatzea.

JEZen epigrafea: 505.1, 2, 3 eta 4 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.432,84
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	5,91
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	59,05

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Jarduera: Arozgintza eta sarrailagintza.

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.354,01
2	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	16,93

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Jarduera: Edozein tipo eta motatako pintura, eta paper, ehun edota plastikozko gainjazkiak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa.

JEZen epigrafea: 505.6 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.629,68
2	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	14,18

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Jarduera: Igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen dekorazioa.

JEZen epigrafea: 505.7 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.629,68
2	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	14,18

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Jarduera: Haragi-txikizkariak egiten dituzten urdaitegiko ekoizkinak.

JEZen epigrafea: 642,1, 2 eta 3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.753,76
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	2,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Oharra: Aurreko zeinuak edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan aurrekuzinatutako platerak egiteak sortzen duena sartzen da, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarria bada.

Oharra: Lokalaren azaleratzat, honi dagokionez, urdaitegiko ekoizkinak egiteko erabiltzen dena hartzen da.

Jarduera: Oilaskoak erretzeagatik, 642.5 Epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.

JEZen epigrafea: 642.5 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Oilasko erretegian enplegaturiko langileria	Pertsona	673,16
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	13,29
3	Erretegiaren edukiera	Pieza	62,89

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen txikizkako merkataritza, baita esne eta esnekiena ere.

JEZen epigrafea: 644.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.090,35
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro karratu	40,75
4	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoek sortzen dutena sartzten da, jarduera nagusiaren osagarri gisa eginez gero: gozogintza gazituko ekoizkinak eta plater aurrekuzinatuak egitea; jardueraren gai diren ekoizkinak dastatzea, edari, kafe, infusio edo solugarriekin batera; eta «catering» jarduerak, bai eta loteriak merkaturatzea ere.

Jarduera: Ogi, ogi berezi eta opilen salmenta.

JEZen epigrafea: 644.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.090,35
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro karratu	40,75
4	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak bakarrik sartzten dira, baldin eta jarduera jarduera nagusi baten osagarria bada: 644,2 epigrafeko jarduerena (zergak baliokidetasun errekaruaren araubide berezian ordaintzen dituztenena izan ezik) eta loteriak merkaturatzearena.

Jarduera: Gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

JEZen epigrafea: 644.3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.064,67
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	8,86
3	Labearen azalera	100 dezimetro karratu	59,34
4	Loteria komisioen	Euroa	0,21

	guztirako zenbatekoa		
--	----------------------	--	--

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoek sortzen dutena sartzan da, jarduera nagusiaren osagarri gisa eginez gero: gozogintza gazituko ekoizkinak eta plater aurrekuzinatua egitea; jardueraren gai diren ekoizkinak dastatzea, edari, kafe, infusio edo solugarriekin batera; eta «catering» jarduerak, bai eta loteriak merkaturatzea ere.

Jarduera: Oreki frijitu, estalien edota estalgabeen nahiz barrubeteen, patata frijituen, janurrekoen, fruitu lehor, golosina, txokolatezko prestakin eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.

JEZen epigrafea: 644.6 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.550,92
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	10,63
3	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak bakarrik sartzan dira, baldin eta jarduera jarduera nagusi baten osagarria bada: 644.6 epigrafeko jarduerena (zergak baliokidetasun errekaruaren araubide berezian ordaintzen dituztenena izan ezik) eta loteriak merkaturatzearena.

Jarduera: 653.2 Epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkatariek euren jarduerako gaien egiten dizkieten konponketak.

JEZen epigrafea: 653.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Konponketan enplegaturiko langileak	Pertsona	5.819,91
2	Konponketa-tailerraren azalera	Metro karratua	5,71

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %48.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan jarduerako gaien konponketa baino ez da sartzan.

Jarduera: Eraikuntzako materialen, eta saneamenduko gai eta altzarien, eta ate, leiho, pertsiana eta abarren txikizkako merkataritza.

JEZen epigrafea: 653.4. eta 5 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	12.317,71
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	239,74

3	Lokalaren azalera	Metro karratua	9,10
---	-------------------	----------------	------

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Jarduera: Lur gaineko ibilgailuetarako aldagailu eta ordezkaien txikizkako merkataritza.

JEZen epigrafea: 654.2 .

Módulo	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	15.558,35
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	272,80
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	620,03

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Jarduera: Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeko aparatuak, bulegoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).

JEZen epigrafea: 654.5 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	18.021,89
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	74,41
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	82,66

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Jarduera: Ibilgailu mota guztietarako gurpilazal, banda edo bandaje eta aire-kamaren txikizkako merkataritza.

JEZen epigrafea: 654.6 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	14.152,98
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	206,67
3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	372,02

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Jarduera: 659.3 Epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkataria, baina negatiboak eta irartzen den argazki-materiala biltzeagatik, beste batzuen laborategietan prozesatzeko; eta kopia eta zabalkuntzak ematea.

JEZen epigrafea: 659.3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	14.533,25

2	Lokalaren azalera	Metro karratua	30,59
---	-------------------	----------------	-------

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Jarduera: Kanpoko publizitate zerbitzuagatik eta garraio publikoaren txartelak, telefonoz erabiltzeko txartelak eta antzekoak, eta loteriak merkaturatzeagatik . 659.4 Epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkatariak.

JEZen epigrafea: 659.4 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Eragiketa horien zioz jasotako komisioen eta kontraprestazioen zenbateko osoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %75.

Jarduera: Loteriak merkaturatzeagatik 647.1, 2 eta 3, 652.2 eta 3 eta 662.2 Epigrafeetan matrikulaturik dauden txikizkako merkatariak.

JEZen epigrafea: 647.1, 2 eta 3, 652.2 eta 3, eta 662.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Eragiketa horien zioz jasotako komisioen zenbateko osoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %75.

Jarduera: Betegarri nahiz betegarririk gabeko oreki frijituen, patata frijituen, gazigarrigaien, fruitu lehorren eta gozokien merkataritzan soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko txikizkako merkataritza; txokolate eta edari freskagarrien gertaketarena, norberaren instalazioan edo ibilgailuan berezko txurrogaia eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik.

JEZen epigrafea: 663.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.881,32
2	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	43,40

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan aipatu gaiak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 663.1 epigrafeko oharraren arabera fabrikatzea eta merkaturatzea bakarrik sartzen dira.

Jarduera: Bi sardexkako jatetxeak.

JEZen epigrafea: 671.4 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
---------	------------	----------	--------------------------------

1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.993,81
2	Potentzia elektrikoa	KWcontratado	150,57
3	Mahaiak	Mesa	168,29
4	«A» motako makinak	«A» motako makina	239,15
5	«B» motako makinak	«B» motako makina	841,46
6	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact-discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact-disc eta musika-bideoak jotzeko makinak, loteriak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Sardexka bateko jatetxeak.

JEZen epigrafea: 671.5 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.400,36
2	Potentzia elektrikoa	KW kontratatua	70,86
3	Mahaiak	Mesa	124,00
4	«A» motako makinak	«A» motako makina	239,15
5	«B» motako makinak	«B» motako makina	841,46
6	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxienerako kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact-discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact-disc eta musika-bideoak jotzeko makinak, loteriak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Kafetegiak.

JEZen epigrafea: 672.1, 2 eta 3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.356,07
2	Potentzia elektrikoa	KW kontratatua	124,00
3	Mahaiak	Mesa	70,86
4	«A» motako makinak	«A» motako makina	221,43
5	«B» motako makinak	«B» motako makina	832,60

6	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21
---	--	-------	------

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact-discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact-disc eta musika-bideoak jotzeko makinak, loteriak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Kategoria bereziko kafetegiak eta tabernak.

JEZen epigrafea: 673.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.294,97
2	Potentzia elektrikoa	KW kontratua	69,09
3	Mahaiak	Mahaia	60,23
4	Barraren luzera	Metroa	77,95
5	«A» motako makinak	«A» motako makina	221,43
6	«B» motako makinak	«B» motako makina	655,45
7	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %6.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact-discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact-disc eta musika-bideoak jotzeko makinak, loteriak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Bestelako kafetegiak eta tabernak.

JEZen epigrafea: 673.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.577,52
2	Potentzia elektrikoa	KWcontratado	47,83
3	Mahaiak	Mahaia	56,69
4	Barraren luzera	Metroa	62,89
5	«A» motako makinak	«A» motako makina	177,15
6	«B» motako makinak	«B» motako makina	655,45
7	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %6.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: billarra, mahai futbola, geziak eta abar; bai eta zinta, bideo, compact-discen erakusleihoak, bolak saltzeko makinak eta abar; bai eta haur jolasak, compact-disc eta musika-bideoak jotzeko makinak, loteriak eta telefonoa erabiltzeko zerbitzua, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Jarduera: Zerbitzuak kiosko, kaxa, barraka nahiz antzeko beste lokaletan.

JEZen epigrafea: 675 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.357,86
2	Potentzia elektrikoa	KW kontratatua	50,48
3	Lokalaren azalera	Metro karratua	4,06
4	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %3.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan loteriak merkaturatzearena sartzen da, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada.

Jarduera: Zerbitzuak txokolategi, izotz denda eta ortxata dendetan.

JEZen epigrafea: 676 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.817,55
2	Potentzia elektrikoa	KW kontratatua	141,72
3	Mahaiak	Mahaia	46,05
4	«A» motako makinak	«A» motako makina	177,15
5	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: txokolate, izotz eta ortxatak egitea; jendeari izotz, ortxata, txokolate, infusioak, kafe eta solugarriak, edari freskagarriak, eta opilgintza, gozogintza, konfitegintza eta postregintzako ekoizkinak saltzea, hauek haiekin batera saldu ohi direnez dastatzeko; jolasteko makinak, hala nola, balantzatxoak, zaldiko-maldikoak, animalia berbaldunak eta abar, bai eta loteriak merkaturatzea ere, baldin eta jarduera nagusiaren erantsi gisa egiten badira.

Jarduera: Izar bateko edo biko hotel eta moteletako ostalaritza zerbitzua.

JEZen epigrafea: 681 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
---------	------------	----------	--------------------------------

1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.604,09
2	Plaza kopurua	Plaza	53,14
3	Loteria komisioen guztirako zenbatekoa	Euroa	0,21

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Oharra: Aurreko zeinu, indize edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan loteriak merkaturatzearena sartzan da, baldin eta jarduera hori jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada.

Jarduera: Ostatuete eta pentsioetako ostalaritza zerbitzua.

JEZen epigrafea: 682 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.533,22
2	Plaza kopurua	Plaza	55,80

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %20.

Jarduera: Ostatuete eta ostalierretxeetako ostalaritza zerbitzua.

JEZen epigrafea: 683 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.762,62
2	Plaza kopurua	Plaza	29,22

Jarduera: Etxerako elektragaien konponketa.

JEZen epigrafea: 691.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.819,91
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	5,71

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %48.

Jarduera: Ibilgailu automobil, bizikleta eta bestelako ibilgailuen konponketa.

JEZen epigrafea: 691.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	8.556,27
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	16,54

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Jarduera: Oinetakoak konpontzea.

JEZen epigrafea: 691.9 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.000,89
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	36,37

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %48.

Jarduera: Beste ataletan ez dauden kontsumogaiak konpontzea (Oinetakoen konponketa; eta artelaren, altzarien, antzinatekoen eta musika-tresnen zaharberrikuntza izan ezik).

JEZen epigrafea: 691.9 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.381,76
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	13,23

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %48.

Jarduera: Industri makineriaren konponketa.

JEZen epigrafea: 692 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	9.721,90
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	53,75

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Jarduera: Beste ataletan ez dauden konponketak.

JEZen epigrafea: 699 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	7.671,69
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	46,31

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Taldekako hiri garraioa eta bidaiarien errepidezko garraioa.

JEZen epigrafea: 721. eta 3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
---------	------------	----------	--------------------------------

1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.700,62
2	Jarleku kopurua	Jarlekuak	79,72

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %1.

Jarduera: Autotaxizko garraioa.

JEZen epigrafea: 721.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	903,46
2	Ibilitako distantzia	1.000 kilometro	8,78

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %10.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan hauxe sartuko da: ibilgailua euskarri gisa darabilten publizitate zerbitzuak ematea, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten bada.

Jarduera: Merkatugaien errepidezko garraioa, hondakinena izan ezik.

JEZen epigrafea: 722 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.149,99
2	Ibilgailuen zama	Tona	388,55

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %10.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak, hala nola, bidai agentziak, merkatugaiak gordailatu eta biltegitratzea eta abar, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Oharra: Baldin eta aldi hondakinak eta hondakin ez diren merkatugaiak garraiatzen badira, jarduera bakoitzari aplikatuko beharreko moduluak mota bakoitzaren benetako jardunaren arabera lantzeko dira. Halaber, jarduera bakoitzari berari dagokion eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota aplikatuko zaio. Ondoren, gutxieneko kuoten batura oinarria izango da jarduera osoari araubide erraztuaren arabera dagokion kuota kalkulatzeko.

Jarduera: Hondakin errepidezko garraioa.

JEZen epigrafea: 722 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	1.948,64
2	Ibilgailuen zama	Tona	181,58

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %1.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan ondokoak sartzen dira: garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak, hala nola, bidai agentziak, merkatugaiak gordailatu eta biltegitratzea eta abar, baldin eta jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten badira.

Oharra: Baldin eta aldi hondakinak eta hondakin ez diren merkatugaiak garraiatzen badira, jarduera bakoitzari aplikatuko beharreko moduluak mota bakoitzaren benetako jardunaren arabera lainsiduko dira. Halaber, jarduera bakoitzari berari dagokion eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota aplikatuko zaio. Ondoren, gutxieneko kuoten batura oinarria izango da jarduera osoari araubide erraztuaren arabera dagokion kuota kalkulatzeko.

Jarduera: Ibilgailuen koipeztaketa eta garbiketa.

JEZen epigrafea: 751.5 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	8.556,27
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	16,54

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Jarduera: Etxe-aldaketen zerbitzuak.

JEZen epigrafea: 757 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	5.712,43
2	Ibilgailuen zama	Tona	256,27

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %10.

Jarduera: Mezularitza eta matalgo jarduera, norberaren garraibideekin egiten dena.

JEZen epigrafea: 849.5 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	4.149,99
2	Ibilgailuen zama	Tona	388,55

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %10.

Jarduera: Lur gaineko eta urgaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea.

JEZen epigrafea: 933.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.000,89
2	Ibilgailu kopurua	Ibilgailuak	256,27

3	Ibilgailuaren zerga-potentzia	CVF	107,47
---	-------------------------------	-----	--------

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %48.

Oharra: Aurreko moduluak ez dira aplikatuko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko 1. idatz-zatiko 9. zenbakian ezarritakoaren arabera Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketetan erabiltzen badira.

Jarduera: Irakaskuntzako beste jarduera batzuk, beste ataletan ez daudenak, hala nola, hizkuntzak, mozketa eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza.

JEZen epigrafea: 933.9 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.413,95
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	2,64

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %48.

Oharra: Aurreko moduluak ez dira aplikatuko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko 1. idatz-zatiko 9. zenbakian ezarritakoaren arabera Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketetan erabiltzen badira.

Jarduera: Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak.

JEZen epigrafea: 967.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.441,10
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	5,58

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %3.

Jarduera: Egindako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikuzketa eta lisaketa.

JEZen epigrafea: 971.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	3.844,13
2	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	14,06

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %48.

Jarduera: Gizonezko eta emakumezkoentzako ile-apainketa zerbitzuak.

JEZen epigrafea: 972.1 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota
---------	------------	----------	------------------------

Eurotan			
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.562,75
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	41,33
3	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	17,48

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %13.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan esku-txukunketa, ile-kenketa, oin-txukunketa eta makillajeko zerbitzuak sartzen dira, baldin eta jarduera horiek ile-apaingintzako jarduera nagusiaren osagarriak badira.

Jarduera: Edergintza areto eta institutuak.

JEZen epigrafea: 972.2 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	2.562,75
2	Lokalaren azalera	Metro karratua	41,33
3	Energia elektrikoaren kontsumoa	100 kWh	17,36

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %32.

Jarduera: Fotokopiagailuen bidez agirien kopiak egiteko zerbitzuak.

JEZen epigrafea: 973.3 .

Modulua	Definizioa	Unitatea	Unitateko urteko kuota Eurotan
1	Enplegaturiko langileak	Pertsona	13.136,13
2	Potentzia elektrikoa	Kw. contratado	239,74

Eragiketa arrunten ziozko gutxieneko kuota: Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren %30.

Oharra: Aurreko zeinu edo moduluak aplikatzearen emaitzako kuotan planoen berregintzako zerbitzuak eta lanak azaleztatzeako zerbitzuak sartzen dira, baldin eta jarduera horiek makina fotokopiagailuak erabiliz egindako kopia-zerbitzuetako jarduera nagusiaren osagarriak badira.

INDIZE ETA MODULUAK BALIO ERANTSIAREN . GAINKO ZERGAN APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK.

ARAU OROKORRAK.

1. Araubide berezi honen kuota hauxe izango da: subjektu pasiboak egindako araubideko jarduera guztien kuoten batura.

Oro har, jarduera bakoitza egiteagatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioa hauxe izango da: araubide berezi eta erraztuaren menpeko jarduera horren «eragiketa arrunten zioz sortutako kuotak» ken «eragiketa arrunten zioz jasan edo ordaindutako kuotak» egin eta horren kendura izango da, eta sartu beharreko kuotaren «gutxieneko zenbatekoa» egongo da. Emaitza «araubide erraztuaren kuota» izango da eta bera zuzendu behar izango da, foru agindu honen III. eranskinean esaten den bezala, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 123. artikuluko lehenengo idatz-zatiko B puntuko

eragiketen kuota gehituz, eta aktibo finakoak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuota kenduz.

2. Aurreko 1. zenbakian adierazitakoaren ondoretarako, ondoren ezarriko den prozedura egingo da jarduera bakoitzaren kuota zenbatzeko:

- 2.1. Eragiketa arrunten zioz sortutako kuota.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuota jarduera bakoitzeko ezarritako moduluen zenbatekoen batura izango da. Moduluen zenbatekoa kalkulatzeko, berriz, bakoitzari esleituriko kopurua jardueran erabili edo instalatutako unitateen kopuruaz biderkatuko da.

Moduluen unitateen kopurua zenbatekoa den zehazteko, ondoko erregelak hartuko dira kontuan:

1. Enplegatutako langileak: Enplegatutako pertsonatzat soldatarik gabekoak, jardueraren titularra barne, eta soldatapekoak hartuko dira.

- a) Soldatarik gabeko langileak: Soldatarik gabeko langilea enpresaburua da. Halaber, halakotzat joko dira beraren ezkontidea edo izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) eta berarekin bizi diren adingabeko seme-alabak ere, baldin eta jardueran lan egin arren soldatapeko langileak ez badira, hurrengo letran ezarritakoaren arabera.

Enpresaburua soldata gabeko pertsona gisa zenbatuko da. Kausa objektiboen eraginez (erretiroa, ezgaitasuna, beste jarduera batzuk egin beharra edo ustiapena aldi batez ixtea) jardueran urtean 1.800 ordu baino gutxiago egiten dituela frogatzen bada, jardueran benetako egindako denbora konputatuko da. Hala gertatzen denean, jarduerako zuzendaritza, antolaketa eta plangintzan egindako denbora eta, oro har, haren titulartasunari datzekion zereginetan egindakoa zenbatzeko, enpresaria 0,25 pertsona/urteko konputatuko da, benetako dedikazioa bestelakoa dela frogatu ezean.

Soldatarik gabeko gainerako pertsonen dagokienez, soldatarik gabeko pertsona gisa konputatuko dira jardueran urtean gutxienez mila eta zortziehun ordu egiten dituztenak.

Jardueran urtean mila eta zortziehun ordu baino gutxiago eginez gero, soldatarik gabeko pertsonaren zenbatekoa lanean benetan egindako ordu kopuruaren eta mila eta zortziehun arteko proportzioa izango da.

%33ko urritasuna edo handiagoa duten soldatarik gabeko langileak %75ean konputatuko dira.

Ezkontidea edo izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) edo adingabeko seme-alabak soldatapeko langile ez direnean, %50ean konputatuko dira, baldin eta jardueraren titularra bere osoan konputatzen bada aurreko idatz-zatian ezarritako txikipena aplikatu baino lehen eta soldatapeko langile bat baino gehiago ez badago. Txikipen hau %33ko urritasunagatik edo handiagoagatik bidezko dena aplikatu ondoren aplikatuko da.

- b) Soldatapeko langileak: Jardueran lan egiten duen gainerako pertsonak soldatapeko langileak dira. Bereziki, soldatapeko langiletzat hartuko dira subjektu pasiboaren ezkontidea edo izatezko bikotekidea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea) eta berarekin bizi diren adingabeko seme-alabak, baldin eta, lan-kontratua

eginik eta Gizarte Segurantzaren afiliaturik, hark egiten duen enpresa-jardueran lan egiten badute jarraitasunarekin.

Ez dira konputatuko soldatapeko pertsona gisa lanlekuetan prestakuntzako nahitaezko modulua egiten ari diren lanbide heziketako ikasleak.

Soldatapeko pertsona gisa konputatuko dira urtean hitzarmen kolektiboan ezarritako ordu kopurua lan egiten dutenak, edo bestela urtean 1.800 ordu egiten dituztenak lanean. Urtean lanean egindako ordu kopurua hortik gorakoa edo beherakoa denean, soldatapeko pertsonaren zenbatekoa lanean benetan egindako ordu kopuruaren eta hitzarmen kolektiboan ezarritako kopuruaren (edo 1.800en) arteko proportzioa izango da.

Hemeretzi urtetik beherako soldatapeko langileak %60an konputatuko dira zerbitzuak ikasketa edo prestakuntzako kontratuaren arabera egiten dituztenean. %33ko urritasuna edo handiagoa duten soldatepeko langileak %40an konputatuko dira. Murrizketa horiek euren artean bateraezina izango dira.

2. Lokalaren azalera: Lokalaren azala kalkulatzeko, Jarduera Ekonomikoen gaineko Tarifak aplikatzeko Jarraibidearen 14.1.F arauko a), b), c) eta h) letretan dagoen definizioa erabiliko da (jarraibide hori apirilaren 30eko 1/1991 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), bai eta Tokiko Zerga-bilketaren Araubidea eraberritu duen martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauko 3. artikuluko e) letretan dagoen definizioa ere.
3. Energia elektrikoaren kontsumoa: Energia elektrikoaren kontsumoa enpresa hornitzaileak fakturatutakoa izango da. Baldin eta fakturan indar aktiboaren eta erreaktiboaren artean bereizten bada, lehenengoa bakarrik konputatuko da.
4. Potentzia elektrikoa: Potentzia elektrikoa energia hornitzen duen enpresarekin kontratatutakoa izango da.
5. Labearen azalera: Labearen azalera haren ezaugarri teknikoari dagokiena izango da.
6. Mahaia: Mahaia unitate gisa konputatzeko, lau pertsona esertzeko modukoa izan behar da. Edukiera gehiago edo gutxiagoko mahaiek euren dagokien proportzioan gehitu edo gutxituko dute zeinu edo modulu aplikagarriaren zenbatekoa.
7. Ibilgailuaren zama: Ibilgailu baten edo multzo baten edukiera baimendutako gehieneko masa guztiaren (Ikuskapen Teknikoaren txarteletan ezarritako administrazio-mugak kontuan hartuz zehaztuko da; 40 tona gehienez) eta ibilgailu emaileen taren (kamioi, atoi, erdiatoi eta trakzioburuaren pisua) baturen arteko kendura izango da. Kilogramo edo tonatan adieraziko da, kasuan kasukoa; tonatan emanez gero, bi dezimal jarri behar dira.

Erdiatoi asko erabiltzen dituzten trakzioburuari dagokienez, haien tara zortzi tona izango da gehienez.

Garraioan edukiontzia baizik erabiltzen ez badira, tara hiru tona izango da.

8. Plazak: Plazen kopurua establezimenduan ostatu eman ahal zaien pertsonen kopurua da.
9. Eserlekuak: Eserlekuen kopurua Ikuskaritza Teknikoaren ibilgailuaren txartelean ageri den unitate kopurua da, gidariarena eta gidatzailearen kenduta.

10. Josteta makinak: Josteta makinak («A» eta «B» motatakoak) Euskadiko Autonomia Erkidegoan Jokoa araupetu duen 4/1991 Legean halakotzat ageri direnak izango dira.

Hala ere, jardueraren titularrarenak ez dira konputatuko.

11. Ibilgailuaren zerga-potentzia: CVF modulua Ikuskaritza Teknikoaren Txartelean ageri den zerga-potentzia izango da.
12. Barraren luzera: Barra zein luze den zehazteko, barratzat hartuko da bezeroek eskatzen dituzten edariak eta janariak zerbitzitzen eta jartzen diren erakus-mahaia. Haren luzera, metrotan eta bi hamartarrekin adieraziko dena, bezeroak dauden aldetik neurtuko da zerbitzariarentzat erreserbatutako zona sartu gabe. Horma, pilare eta abarri itsatsita apoiatzeko barra lagungarriak egonez gero, haien luzera modulua kalkulatzeko hartu beharko da kontuan, aulkiak eduki edo eduki gabe.

2.2. Eragiketa arrunten zioz sortu kuotaren eta jasandako kuoten arteko kendura.

Eragiketa arrunten zioz sortutako kuotatik aktibo finkoek besteko ondasun eta eskubideak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira, baldin eta ondasun eta eskubideok jarduera egiteko erabiltzen badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VIII. tituluko I. kapituluaren eta Zergaren Araudian ezarritakoaren arabera; horri dagokionez, aktibo finkotzat hartuko dira ibilgetuaren osagaiak. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 130. artikuluko nekazaritzako konpentsazioak ere kendu ahal izango dira, hau da, subjektu pasiboek ondasun edota eskubideak eskuratzeko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren menpean dauden enpresaburuei ordaindutakoak. Hala ere, jasandako kuota gisa, eragiketa arrunten zioz sortutako kuotaren zenbatekoaren %1 kendu ahal izango da frogagaitzak izateagatik.

Aurreko paragrafoko kenkariei ondoko erregelok aplikatuko zaizkio:

1. Joan-etorri edo bidaien, ostalaritza eta jatetxeen zerbitzuen zioz jasandako kuotak ezin kendu izango dira, baldin eta enpresariak edo profesionalak jarduera lokal jakin batean egiten badute. Horretarako, lokal jakina zeinahi eraikin izango da, jendea ezin sar daitekeen biltegiak, aparkalekuak eta gordailutegiak izan ezik.
2. Jasandako edo ordaindutako kuotak jasantzat edo ordaindutatzat jo behar diren urteko azken zergaldiko autolikidazioan soilik kendu ahal izango dira; beraz, jarraiko urteetan zerga-ordainketan aplikatu beharreko araubidea gorabehera, ezin kendu izango dira geroagoko zergaldi batean.
3. Enpresaburuak edo profesionalak ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen baditu araubide honi heldutako jarduera batzuetan batera erabiltzeko, orduan jarduera bakoitzean kendu behar den kuota ondasun eta eskubideak benetan erabiltzearen lainekoa izango da. Prozedura hori ezin aplikatu bada, orduan jarduerari hainbana egotziko zaie.

2.3. Araubide erraztuaren kuota.

Araubide erraztuaren kuota ondoko kopuruetarik handiena izango da:

- Aurreko 2.2 puntukoa.

Boladako jardueretan, kopuru hori ondoko 6. zenbakiko indize zuzentzaileaz biderkatuko da.

- Gutxieneko kuota, Balio Erantsiaren gaineko Zergako edo antzeko kuoten zenbatekoa gehituta; izan ere, kuota horiek Zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo lortu behar izan dira, eta subjektu pasiboari itzuli behar izan zaizkio ekitaldian; beste alde batetik, kuota horiek araubide erraztuaren menpeko jarduera egitean erabiltzeko eskuratutako ondasun edota eskubideenak izan behar dute.

Gutxieneko kuota hori honelaxe lortuko da: portzentaia bat, agindu honen II. eranskinean dagoen jarduera bakoitzeko ezarritakoa, aurreko 2.1. zenbakian zehaztutako eragiketa arrunten ziozko kuotaren gainean ezartzetik aterako da.

Boladako jardueretan, gutxieneko kuota 6. zenbakian ezarritako indize zuzentzaileaz biderkatuko da.

HIRUHILEKOKO KUOTAK.

3. Aurreko 2. zenbakian adierazitakoa aplikatzearen emaitza subjektu pasiboak ekitaldiaren amaieran kalkulatu beharko du; halaz guztiz, egutegiko urte bakoitzeko lehenengo hiru hiruhilekoetako autolikidazioetan, subjektu pasiboak araubide erraztuaren kuotaren zati baten konturako sarrera egingo du, apiril, uztail eta urriko egutegiko lehenengo hogeita bost egunetan; kuota hori kalkulatzeko, ondoren jarduera bakoitzeko adieraziko den ehunekoa aplikatuko zaio eragiketa arrunten zioz sortutako kuotari (kuota hori aurreko 2.1. zenbakian adierazitakoren arabera kalkulatu da):

JEZ	Jarduera ekonomikoa	Ehuneko
314. eta 315	Metalezko arozgintza, eta metalezko egitura eta galdaren fabrikazioa.	9
316,2, 3, 4 eta 9	Burdineria, sarrailagintza, torlojogintzako gaien fabrikazioa, eta burdin hariaren eratorri, tresneria eta beste ataletan ez dauden metalezko gaien fabrikazioa.	10
419.1	Ogi-opilgintza.	6
419.2	Opil, gozoki eta gailtagintza	9
419.3	Oreki frijituen industriak	10
423.9	Patata frijitu, krispeta eta antzekoak prestatzea	10
453	Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, salbu eta horiek guztiak gehienbat beste batzuei aginduta egiten direnean	10
453	Janzkiak eta beraien osagarriak saldoka egitea, enpresak berak eginda, baldin eta beste batzuentzat eta agindupean egiten badira	10
463	Arozgintzako piezak, parket eta eraikuntzarako zurezko egiturak saldoka egitea	10
468	Zurezko altzarrien industria	10
474.1	Testuak eta irudiak inprimatzea	9
501.3	Igeltserogintza eta eraikuntzako orotariko lan txikiak	2
504.1	Instalazio eta muntaketak (iturgintza, hotz, bero eta aire-girotzekoak izan ezik).	4
504,2. eta 3	Iturgintzako, hotz, bero eta aire-girotzeko instalazioak	5
504.4, 5, 6, 7 eta 8	Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea. Tipo eta mota guztietako sukaldeen muntaketa eta ezarketa, aldagailuen mota eta tipo guztiak barne. Tipo eta mota guztietako goragailuen muntaketa eta instalazioa. Edozein motatako eraikinetan telefonoa, telegrafoa, hariarik gabeko telegrafoa eta telebista	4

	instalatzea. Metalezko muntakeak eta industri instalazio osoak; baina makineria eta ezarri edo muntatu behar diren osagaiak saldu eta ekarri gabe.	
505.1, 2, 3 eta 4	Gainjazki, zoruketa eta zoladurak; eta isolamenduak instalatzea	5
505.5	Arozgintza eta sarrailagintza	5
505.6	Edozein tipo eta motatako pintura, eta paper, ehun edota plastikozko gainjazkiak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa	7
505.7	Pintura, igeltsu eta eskaiolazko lanak, eta eraikin eta lokalen akabera eta dekorazioa.	7
642.1, 2, 3	Haragi-txikizkariak egiten dituzten urdaitegiko ekoizkinak	10
642.5	Oilaskoak erretzeagatik, 642.5 epigrafean matrikulaturik dauden txikizkako merkataria.	10
644.1	Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen txikizkako merkataritza, baita esne eta esnekiena ere	6
644.2	Ogi, ogi berezi eta opilen salmenta	6
644.3	Gozokigintza, opilgintza eta konfitegintzako ekoizkinen txikizkako merkataritza	9
644.6	Oreki frijitu, estalien edota estalgabeen nahiz barrubeteen, patata frijituen, janurrekoen, fruitu lehor, golosina, txokolatzeko prestakin eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.	10
653.2	Material eta aparatu elektrikoak, elektronikoak eta elektratresnen, argindarra ez beste energia mota batez eragiten diren etxe erabilerako bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.	15
653,4. eta 5	Eraikuntzako materialen, eta saneamenduko gai eta altzarien, eta ate, leiho, pertsiana eta abarren txikizkako merkataritza	4
654.2	Lur gaineko ibilgailuetarako aldagailu eta ordezkaien txikizkako merkataritza	4
654.5	Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxeo aparatuek, bulegoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).	4
654.6	Ibilgailu mota guztietarako gurgilazal, banda edo bandaje eta aire-kamaren txikizkako merkataritza; gai horien handizkako merkataritzako jarduerak izan ezik.	4
659.3	659.3 epigrafean matrikulaturiko txikizkako merkataria, baina negatiboak eta irartzen den argazki-materiala biltzeagatik, beste batzuen laborategietan prozesatzeko; eta kopia eta zabalkuntzak ematea.	4
663.1	Betegarri nahiz betegarrik gabeko oreki frijituen, patata frijituen, gazigarrigaien, fruitu lehorren eta gozokiaren merkataritza soilik diharduen merkataritzako establezimendu iraunkorretik kanpoko txikizkako merkataritza; txokolate eta edari freskagarrien gertaketarena, norberaren instalazioan edo ibilgailuan berezko txurrogaiak eta patata frijituak egiteko ahalmena izanik.	6
671.4	Bi sardexkako jatetxeak	4
671.5	Sardexka bateko jatetxeak	6
672.1, 2 eta	Kafetegiak.	4

3		
673.1	Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak.	2
673.2	Bestelako kafetegiak eta tabernak.	2
675	Zerbitzuak kiosko, kaxa, barraka nahiz antzeko beste lokaletan.	1
676	Zerbitzuak txokolategi, izotz denda eta ortxata dendetan.	6
681	Izar bateko edo biko hotel eta moteletako ostalaritza zerbitzua	6
682	Ostatuetxe eta pentsioetako ostalaritza zerbitzua	6
683	Ostatuetxe eta ostalierretxeetako ostalaritza zerbitzua	9
691.1	Etixerako tresna elektrikoek konponketa	15
691.2	Ibilgailu automobilak, bizikletak eta bestelako ibilgailuak konpontzea.	9
691.9	Oinetakoen konponketa	15
691.9	Beste ataletan ez dauden kontsumogaiak konpontzea (oinetakoen konponketa; eta artelaren, altzarien, antzinatekoen eta musika-tresnen zaharberrikuntza izan ezik).	15
692	Industriarako makinak konpontzea	9
699	Beste ataletan ez dauden konponketak	10
721. eta 3	Taldeko hiri garraioa, eta bidaiarien errepidezkoa	1
721.2	Autotaxi bidezko garraioa.	5
722	Merkatugaien errepidezko garraioa, hondakinena izan ezik.	5
722	Merkatugaien errepidezko garraioa.	1
751.5	Ibilgailuak koipeztatu eta garbitzea.	9
757	Etxe-aldaketen zerbitzuak.	5
849.5	Mezularitza eta matalgo jardura, norberaren garraio bideekin egiten dena.	5
933.1	Lur gaineko eta urgaineko ibilgailuak, nahiz aireontziak eta abar gidatzen irakastea.	15
933.9	Irakaskuntzako beste jardura batzuk, beste ataletan ez daudenak, hala nola, hizkuntzak, mozketak eta jantzigintza, mekanografia, takigrafia, azterketa, oposizio eta antzekoen prestakuntza.	15
967.2	Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak	2
971.1	Erabilitako arropa eta etxeko jantzi eta gai erabilien tindaketa, lehorreko garbiketa, ikusketa eta lisaketa.	15
972.1	Gizonezko eta emakumezkoentzako ile-apainketa zerbitzuak.	5
972.2	Edertasun areto eta institutuak	10
973.3	Fotokopiagailuen bidezko agiri kopiagintza zerbitzuak	9

4. Lehenengo hiru hiruhilekoetako bakoitzean egin behar den sarrera kalkulatzeko, urteko epealdi bakoitzean hasieran aplikatu behar diren modulu eta indize zuzentzaileak jardura arloko oinarri-datuei urtarilaren 1ean dagozkienak izango dira.

Oinarri-daturen bat urteko lehenengo egunean ezin zehaztu daitekeenean, aurreko urtekoa hartuko da. Arau hori bera aplikatuko da boladako jardueretan ere.

Aurreko urtean jarduera egin ez denean, hasieran ezartzen diren moduluak eta indize zuzentzaileak hasierako eguneko oinarri-datuei dagozkienak izango dira.

Modulu bakoitzaren oinarri-datuak zenbaki osoa ez bada, bi hamartarrekin adieraziko da.

5. Jarduerari hasiera urtarrilaren 1az gero ematen zaionean, edo abenduaren 31 baino lehen uzten denean, edo inguruabar biak batera gertatzen direnean, aurreko 3. zenbakian adierazitako epeetan sartu beharreko kopuruak honelaxe kalkulatu dira:
 1. Eragiketa arrunten zioz sortutako kuota, aurreko 4. zenbakian ezarritakoaren arabera, jarduera arloari dagozkion moduluak aplikatutako zehaztuko da.
 2. Jardueraren egutegiko hiruhileko bakoitzeko, jarduera bakoitzarentzat aurreko 3. zenbakian dagoen ehunekoa sartuko da.
 3. Egutegiko lehenengo hiruhileko ezosoan sartu behar den kopurua honela kalkulatu da: egutegiko hiruhileko horretan jarduera egiten izan den egunen kopurua zatituko da hiruhileko horretako egutegiko egun guztiez; hortik zatidura bat lortuko da, eta zatidura hori biderkatuko da egutegiko hiruhileko osoari dagokion kuotaz.
6. Boladako jardueretan, kuota aurreko laugarren zenbakian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

Eragiketa arrunten zioz egunean sortutako kuota kalkulatzeko urtean sortutako kuotaren eta aurreko urtean izandako jarduera-egunen arteko zatiketa egin behar da.

Zenbaki honetan aipatutako jardueretan, egutegiko hiruhileko bakoitzaren zioz egin beharreko sarrera zein den jakiteko, hauxe egingo da: hiruhileko horretan jarduera zenbat egunetan egiten den, eta egutegiko horien kopurua biderkatuko da eragiketa arrunten zioz egunean-egunean sortutako kuotaz, eta biderkadura horri aurreko 3. zenbakian jarduera bakoitzari dagokion ehunekoa aplikatuko zaio; horixe izango da sartu beharreko kopurua.

Zenbaki honetan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko kuota ondoko indize zuzentzaileak aplikatuta gehituko da:

- Boladako 60 egunera arte: 1,50.
- Boladako 61 egunetik 120ra arte: 1,35.
- Boladako 121 egunetik 180ra arte: 1,25.

Indize hau boladaren iraupenaren arabera aplikatuko da.

Normalean urteko egun jakin batzuetan, jarraitu nahiz txandakatuetan, burutzen diren jarduerak hartuko dira boladako jardueratzat, beti ere, egun horien urteko kopuru osoa 180tik gorakoa ez bada.

Boladako jarduera guztietan, subjektu pasiboak autolikidazioa aurkeztu beharko du Zergaren Araudian ezarritako modu eta epeetan, nahiz eta sartu beharreko kuota zero eurokoa izan.

7. Enpresa edo lanbide jarduera osagarriak egiten badira, hiruhilabeterik behin egin behar den sarrera zein den jakiteko honelaxe jotatuko da: «Komisioen edo kontraprestazioen zenbatekoaren» modulurako esleituriko kopurua aplikatuko da jarduera erantsi horren hiruhileko sarrera guztien gainean.

URTEKO KUOTA

8. Urtea amaituta edo jarduera uztean edo bolada amaituta, urtean zein kuota sortu den kalkulatu eta ekitaldiko azken autolikidazioan adierazteko, subjektu pasiboak zeinu, indize edo moduluen batez bestekoa kalkulatu beharko du, egutegiko urtean zehar jarduera egin duen epealdi guztiari begira.
9. Zeinu, indize edo moduluen batez bestekoa orduen arabera zehaztuko da, soldatapeko eta soldatarik gabeko langileei dagokienez; bestelako kasuetan, erabili, usatu edo ezartzeko benetan eman diren egunen arabera zehaztuko da; argindarraren kontsumoa edo ibilitako distantzia kalkulatzeko, ostera, gastatutako kilowatt-orduak eta ibilitako kilometroak hartuko dira kontuan, hurrenez hurren. Zenbakia osoa ez bada, hamartar birekin adieraziko da. Jardueran edo jarduera arloan, modulua zati batez erabiltzen denean, zenbatu behar den balioa haren lainketatik ateratzen dena izango da benetako erabilpenaren arabera. Hori ezin bada zehaztu, zati berdinka egotziko zaio moduluen erabilpen bakoitzari.
10. Ekitaldiko azken autolikidazioan, araubide erraztuaren kuota kalkulatu da, aurreko 2. zenbakian adierazitako prozeduraren arabera, eta handik ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetako autolikidazioetan likidaturiko kopuruak kenduko dira. Eraitza negatiboa bada, subjektu pasiboak dirua itzultzeko eskatu ahal izango du, Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluko lehenengo idatz-zatian ezarri den bezala. Bestela, hurrengo aldizkako autolikidazioetan beraren alde gertatzen den saldoarekin konpentsatzea hautatu ahal izango du.
11. Egutegiko urte bateko azken hiruhilekoko autolikidazioa hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu behar da.
12. Zergari buruzko Foru Arauko 123. artikuluko lehenengo idatz-zatiko B puntuan adierazitako eragiketen kuotak likidatzeko eta aktibo finkoak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuotak kentzeko, foru agindu honen III. eranskineko 1. zenbakian adierazitakoa egin behar da.

III. ERANSKINA JARDUERA GUZTIENTZAKO OHARRAK

1. Araubide erraztuaren kuota gehitu egingo da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 123. artikuluko lehenengo idatz-zatiko B puntuko eragiketen zioz sortutako kuoten zenbatekoan; kuota hori, berriz, txikitu ahal izango da, jarduera egitean erabiltzeko aktibo finkoak eskuratu edo inportatzearen zioz jasan edo ordaindutako kuoten zenbatekoan. Horretarako, aktibo finkotzat joko dira ibilgetuaren osagaiak eta, batez ere, erosteko aukera duten finantza-errentamenduko kontratuen bidez eskuratzen direnak, erosteko aukera loteslea izan zein ez.

Zergari buruzko Foru Arauko 123. artikuluko lehenengo idatz-zatiko B puntuko eragiketen kuotak (Europar Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak; eskuraketak, subjektu pasiboen inbertsioekin; eta aktibo finkoen eskualdaketak) Zergaren sortzapena gertatu den hiruhileko autolikidazioan agertarazi behar dira. Hala ere, subjektu pasiboak kuota horiek ekitaldiko azken likidazioaldiko autolikidazioan likidatu ahal izango ditu.

Aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira, Zergari buruzko Foru Arauko 99. artikuluan ezarritako arau orokorren arabera, non eta jasan edo ordaindutako likidazioaldiko autolikidazioan, bestela, ondorengo autolikidazioetan kendu ahal izango da, artikuluko honetan ezarritako mugekin. Hala ere, subjektu pasiboak ekitaldiko azken zergaldiko autolikidazioan ondokoak likidatzen baditu: Europar Batasunaren barruan aktibo finkoak eskuratzearenak, edo aktibo horiek eskuratzearenak, subjektu pasiboaren inbertsioarekin; bada, horrelakoetan, kuota horietatik ezin izango da kenkaririk egin kuota horiek likidatzen dituen autolikidazioaren aurrekoetarik baten ere.

Azken hiruhilekoari dagokion autolikidazioan, halaber, 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen jasan edo ordaindutako kuotak erregularizatu ahal izango dira, baldin eta kuotok araubide erraztuaren menpeko jardueri loturiko inbertsio ondasunak eskuratu edo inportatzeari badagozkio kuotok, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 107. artikuluan xedatutakoaren arabera; horretarako, nahitaezkoa izango da manu horretan erregularizazioa egiteko adierazitako epealdia igarota ez izatea. Horretarako, 1998ko urtarrilaren 1era arte araubide erraztuan egon diren jardueren kenkarien laintzat zero hartuko da; hortik kanpo geldituko dira higiezin, ontzi eta aktibo ezmaterialak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotak, baldin eta ondasun horiek guztiak 1998ko urtarrilaren 1era arte araubide horretatik baztertuta egon badira.

2. Araubide erraztua aplikatu behar den jardueretan sute, uholde, amiltze edo matxura handiak gertatzen badira industri ekipoan, eta horiek aldakuntza astunak ekartzen badizkiote jarduera egiteari, orduan, interesatuek eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari indize edo moduluak txikitzeko; horretarako, hogeita hamar eguneko epea dago, inguruabar horiek jazotzen diren egunetik zenbatuta; gainera, beharrezko frogak ekarri beharko dituzte. Aldakuntza horiek gertatu direla Zerga Administrazioari frogatu eta gero, indize edo moduluak txikitzea erabakiko da.
3. Araubide erraztua aplikatu ahal zaion jardueraren titularra aldi baterako ezindurik badago eta inor ez badu enplegatutik, ezindurik dagoen egun kopuruaren proportzioan txikitu ahal izango ditu indizeak eta moduluak hala dagoen aldiko autolikidazioan. Horretarako, ezintasuna frogatu beharko du.